



ARTZINIEGAKO UDALA

AKTA

Saioa: Ezohiko osoko bilkura
Eguna: 2019ko abenduak 19
Ordua: 8:35 – 8:50
Lekua: Udaletxeko Bilkura Gela

Bertaratuak:

Joseba Mirena Vivanco Retes
Zuriñe Frutos Gutierrez-Barquin
Unai Gotxi Kastrexana
Alazne Lafragua Ureta
Encina Castresana Astarloa
Miren Izaskun Perez Barragan
Jose Miguel Vadillo Ribacoba

Ez dira bertaratu: Arkaitz San Jose Martinez eta Joseba Elejalde Ribacoba, ez etortzearen arrazoiak eman dituztenak.

M^a Ascension Hormazabal Meabe, Idazkari eta Kontu-hartzailea.

Saioa hasita eta lehendakariak publikotzat jo ostean, 8:35etan, gai-zerrendako puntuak ezagutarazi dira, eta akordio hauek hartu dira:

1.- 2019ko urriaren 3an eta 15ean eta azaroaren 7an egindako Saiotako Aktak onartzea.

Alkatea: akten inguruan ezer aipatu nahi baldin baduzue.

2019ko urriaren 3ko akta bozkatu da:

Aldeko botoak:

Joseba Mirena Vivanco Retes, Zuriñe Frutos Gutierrez-Barquin, Unai Gotxi Kastrexana eta Alazne Lafragua Ureta, EHBildu taldekoak (4) ;Miren Izaskun Perez Barragan eta Jose Miguel Vadillo Ribacoba, EAJ alderdikoak (2) ;

Kontran:

Batere ez.

Abstentzioa:

Encina Castresana Astarloa, EAJ(1) alderdikoak;
Onartuta geratu da.

2019ko urriaren 15eko akta bozkatu da:

Aldeko botoak:

Joseba Mirena Vivanco Retes, Zuriñe Frutos Gutierrez-Barquin, Unai Gotxi Kastrexana eta Arkaitz San Jose Martinez, EHBildu taldekoak (5) taldekoak; Encina Castresana Astarloa, EAJ alderdikoak (1);

Kontran:

Batere ez.

Abstentzioa:

Miren Izaskun Perez Barragan eta Jose Miguel Vadillo Ribacoba, EAJ (2) alderdikoak;
Onartuta geratu da.



2019ko azaroaren 7ko akta bozkatu da:

Aldeko botoak:

Joseba Mirena Vivanco Retes, Zuriñe Frutos Gutierrez-Barquin, Unai Gotxi Kastrexana eta Arkaitz San Jose Martinez, EHBildu taldekoak (5) taldekoak; Encina Castresana Astarloa eta Jose Miguel Vadillo Ribacoba, EAJ alderdikoak (2);

Kontran:

Batere ez.

Abstentzioa:

Miren Izaskun Perez Barragan, EAJ alderdikoa (1);

Onartuta geratu da.

2.- Udal Igerilekuak egokitzeko obra esleitzea.

Alkatea: igerilekuetako obraren esleipenaren unea iritsi da. Besterik gabe, esan lizitazioa 396.469,89 eurotan atera zela eta sei hilabeteko iraupen batekin eta, azkenean, baja bat egon da, irakurriko dizuedan moduan, eta baita egikaritzeko epean ere. 2019ko abenduaren 16an egin zen Natura eta Hiri Ingurunekeo, energia, ur, mendi, Ingurumen, lan eta hondakinen kudeaketarako Informazio Batzordearen saioan emandako irizpena irakurri du.

“2019KO ABENDUAREN 16AN EGIN ZEN NATURA ETA HIRI INGURUNEKO, ENERGIA, UR, MENDI, INGURUMEN, LAN ETA HONDAKINEN KUDEAKETARAKO INFORMAZIO BATZORDEAREN IRIZPENA.

Esleitu asmo den kontratuaren ezaugarriak ikusita:

<i>Kontratu mota: LANAK</i>	
<i>Kontratuaren xedea: ARTZINIEGAKO UDAL IGERILEKUAK EGOITZEA</i>	
<i>Kontratazioaren prozedura: irekia, sinplifikatua</i>	<i>Izapide mota: arrunta</i>
<i>CPV kodea: 45212212-5</i>	
<i>Kontratuaren balio estimatua: 396.469,89 €</i>	
<i>Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua (BEZ kanpo): 327.661,07 €</i>	<i>BEZ (%): 68.808,82 €</i>
<i>Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua (BEZ barne): 396.469,89 €</i>	
<i>Egikaritzearen iraupena: SEI HILABETE</i>	<i>Gehienezko iraupena: SEI HILABETE</i>

Izapidetutako kontratazio-espeditentia ikusirik:

Dokumentua	Data/zenbakia
<i>Baldintza teknikoen plegua</i>	<i>Iraila</i>
<i>Baldintza administratiboaren plegua</i>	<i>Iraila</i>
<i>Aurretiko fiskalizazio txostena</i>	<i>2019-11-04</i>
<i>Kontratazio-organoaren ebazpena</i>	<i>2019-11-07</i>
<i>Lizitazioaren iragarpena</i>	<i>2019-11-08</i>
<i>Irekieraren kontratazio-mahaiaren akta, gutun-azal bakarra</i>	<i>2019-11-29</i>
<i>Lizitatzailari egindako eskaera</i>	<i>2019-12-03</i>



Gaineratzen den dokumentazioa aztertuta, Idazkaritzaren txostena ikusita, eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak Espainiako ordenamendu juridikora eramateko Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen Bigarren Xedapen Gehigarrian ezarritakoarekin bat etorritz,

ERABAKI hau hartzen da:

LEHENA. Esleitzea Udal Igerilekuak Egokitzeko lanak GALITEC DESARROLLOS TECNOLOGICOS, enpresaren alde, haren eskaintzan agertzen diren baldintzetan, baldintza administratibo berezien eta baldintza teknikoan pleguetan zehazten direnak, guztira hirurehun eta bederatziehun eta laurogeita zortzi euro eta berrogeita hamahiru zentimo gehi BEZ zergari dagozkion hirurogeita mila berrehun eta zazpi euro eta berrogeita hamazazpi zentimo, guztira 364.196,12 eurotan

BIGARRENA. Esleipendunak aurkeztutako eskaintzak hobekuntza eta irizpide hauek barneratzen ditu:

- Lanak egikaritzeko epea murriztu egiten du, 5 HILABETEKOA izango dena.
- Berme-epa hobetu egiten du, 5 urtekoa izango dena.
- Kontratuaren egikaritzera atxikitako lantaldean kontratu finkodun hamar pertsona barneratzen dira.
- EMAS, ISO 14001 Ekosan erako ingurumena kudeatzeko sistema bat du, edo baliokidea.
- Ez du azpikontrataziorik aurreikusten.
- Aplikazio-hitzarmena: "Arabako Eraikuntza"

HIRUGARRENA. Gastua 2019ko aurrekontuko 342.601.001 aurrekontu-aplikazioaren kontura egitea.

LAUGARRENA. Esleipenaren iragarkia argitaratzea kontratatzailearen profilean 15 eguneko epean.

BOSGARRENA. Esleipendun izan ez diren lizitatzailen esleipenaren berri ematea.

SEIGARRENA. GALITEC DESARROLLOS TECNOLOGICOS enpresari, kontratuaren esleipendunari, Ebazpen honen berri ematea.

ZAZPIGARRENA. Kontratua formalizatzeko iragarkia argitaratzea kontratatzailearen Profilean, beranduenez hamabost eguneko epean kontratua hobetu eta gero eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeko III. eranskinean barneratzen den edukiarekin".

Aldeko botoak:

Joseba Mirena Vivanco Retes, Zuriñe Frutos Gutierrez-Barquin, Unai Gotxi Kastrexana eta Alazne Lafragua Ureta, EHBildu taldekoak (4); Encina Castresana Astarloa, Miren Izaskun Perez Barragan eta Jose Miguel Vadillo Ribacoba, EAJ alderdikoak (3);

Kontran:

Batere ez.

Abstentzioa:

Batere ez.

Onartuta geratu da.

3.- Santa Koloman mugarriztatutako bidearen azalera berreskuratzea.



Alkateak 2019ko abenduaren 16an egin zen Natura eta Hiri Inguruneko, energia, ur, mendi, Ingurumen, lan eta hondakinen kudeaketarako Informazio Batzordearen saioan emandako irizpena irakurri du.

“2019KO ABENDUAREN 16AN EGIN ZEN NATURA ETA HIRI INGURUNEKO, ENERGIA, UR, MENDI, INGURUMEN, LAN ETA HONDAKINEN KUDEAKETARAKO INFORMAZIO BATZORDEAREN IRIZPENA.

Gaia: Santa Kolomako bide publikoa ofizioz berreskuratzea, Artziniegako 4. industrialdeko 738 A, 38 B, 737 A, 26 A, 26 B eta 49 A katastroko partzeletatik igarotzen den lekuan.

Ikusirik 2019ko urriaren 3ko osoko saioan hartutako erabakia, Santa Kolomako Bidea ofizioz berreskuratze espedienteari buruz, zeinaren arabera xedatzen baita:

LEHENA.- Angel Arechavala Torre jaunak eta Alejandro Barcena Aguirre jaunak beren alegazio-idatzietan mugaketa mugarriztatzea bertan behera uzteko egindako eskaera ezestea. Dena den, hura praktikoki burutu aurretik ofizioz berreskuratze espedientea izapidetuko da udal zerbitzu teknikoek adierazitako okupazioak kendu eta baztertzeko bidea haren erabilera publikoa eragozten duen okupazio orotatik salbu eta libre uzte aldera, mugarriztatzea legez gauzatu ahal izateko.

BIGARRENA.- Santa Kolomako mugarriztaturiko bideko, zeinaren erabilera instalazio eta eraikuntza ezberdinek oztopatzen baitute, azalera hauek ofizioz berreskuratze administrazio-espedientea abiatzea, haren identifikaziorako katastro-erreferentzia zaharrak aipatuz:

1. Antzinako 49 A katastro-partzela, gaur egun, lur-erazketak eta bi txabola txikik eta egindako lur-neurketatik kanpo dagoen itxitura batek okupatzen duten bide publikoa. Horiek kendu egin beharko dira, eta pilatutako materialak eta atoiak ere kendu egin beharko dira.
2. Antzinako 737 A katastro-partzela, gaur egun pilatutako eraikuntza-materialak, bertatik kendu beharko dena, okupatzen duen bide publikoa.
3. Antzinako 38 B katastro-partzela, gaur egun lur-erazketak eta egindako lur-neurketatik kanpoko abeltzaintzako itxiturak, kendu egin beharko dena, okupatutako bide publikoa.
4. Antzinako A katastro-partzela, gaur egun lur-erazketak eta harlangaitzezko itxiturak eta landare-elementuek (metalezko atea duena eta hormigoizko zolata ibilgailu sarbidean) okupatutako bide publikoa. Horiek kendu egin beharko dira pilatutako materialarekin eta bertan dauden hirigintzako beste elementu batzuekin eta altzari zenbaitekin batera.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea interesdun diren guztiei, HAMABOST EGUNEKO epea emanez, jakinarazpena egiten denetik zenbatzen hasita, alegazioak egin ditzaten edo egokitzen jotzen dituzten probak aurkez ditzaten.

Alegazioak ipintzeko epea igarota, espedientea ebatzi egingo dela jakinaraztea, mugaketa egindako bide publikoko lurrak, okupazio orotatik libre daudenak, utz ditzatela eskatuz, haietarako sarbide publikoa ahalbidetuz inolako eragozpenik ipini gabe.

Ohartaraztea behin bidea berreskuratze eskakizuna egin ondotik, haren erabilera eragozten duten okupazioak kenduz, horretarako ematen den epearen



barnean, ez bada berriaz hori betetzen, Udalak berreskuratu egingo duela, egikaritze subsidiarioan, gastu guztiak obligaziodunen kontura izanik, zeintzuei dagokion likidazioa igorriko baitzaie dagokion zenbatekoarekin eta, beharrezkoa balitz, haren ondarearen aurrean premiamenduzko bidera joz.

Kontuan hartuz, interesdunei erabakiaren berri eman ostean entzunaldirako izapidea irekita, alegazio hauek aurkeztu direla:

I.- 2019ko azaroaren 18an (3249 sarrera-erregistroa), Angel Arechavala Torre jaunak Udalak aurrera eraman asmo dituen esku-hartzeak bertan behera uztea erabaki dadila eskatu zuen, adieraziz bide zibil arruntean auzi prozedura irekita duela Epaitegiak Udalak bere jabetzakotzat hartzen duen lur-azaleraren titulartasunari buruzko epaia eman dezan, azalera horretan errekurso-egilearen aldeko jabari-titulartasun deklaratzeko aldera. Auzi hori Amurriko Lehen Instantziako 1 zenbakidun Epaitegiaren aurrean ebatzen da, 161/19 zenbakidun Ahozko Epaiketaren autoaren baitan, non auzi-eskatzaille modura errekurtsogilea agertzen den eta demandatu modura Udala. Prozedura judiziala behin betikoz ebatzi arte bertan behera uzteko eskatzen du hertsatuki, izan ere, beste modu batean jardunez gero alegazioa ipintzen duenaren aurkako kalte larria eragingo litzatekeela ulertzen du, kalte konponezinak ekarriko bailizkioke. Udalak neurritz eta proportzionaltasunez jokatzeko beharrezkoak diren inguruabarrak ematen direla aipatzen du, esku-hartzeak bertan behera utziz epaitegiek irizpena eman bitartean eta, bere ustez, interes publikoa ez da aldatzen, izan ere, bidea baldintza horietan egon da duela 30 urte baino gehiagotik hona, beraz, ez dago esku-hartze horiek hedatzeko halako presarik.

II.- 2019ko azaroaren 18an (3250 sarrera-erregistroa), Angel Arechavala Torre jaunak bertan behera uzteko eskaeraren ezespenaren aurrean berraztertze errekurtsoa ipinitzat eman dadila eskatu zuen, aurreko idatzian azaldutako argudioak errepikatuz.

Kontuan izanik mugaketaren eraginkortasuna bertan behera uzteko eskaera ezin dela baietsi eta mugarrizaturiko bidea mugakide irmoko akordioz ofizioz berreskuratu ezin dela, hurrengo oinarrietan funtsatuta:

- Errepikatu behar da ez dela bidearen mugakide diren jabedun guztiei entzunda izapidetu den mugaketaren administrazio-egintzaren eraginkortasuna bertan behera uzteko inolako arrazoirik ematen, mugaketa behin betikoz onartzeko egintza irmotzat joz. Ezin da baietsi mugarrizaturiko bidean mugarriak ipintzea bertan behera uztea, izan ere, mugaketaren eragiketa osagarria da, zeinaren helburua akordio irmo bidez behin betikoz onartutako mugaketaren akordioan finkatuta geratu diren bideko mugak mugarri bidez ezarri edo adieraztea da, ez delarik onargarria mugaketa-prozeduran aurkeztutako alegazio errepikatuak, legez ebatzi direnak.
- Mugarriak legez ipini ahal izateko ezinbestekoa da udal zerbitzu teknikoek adierazitako okupazioak kentzea bidea erabilera publikoa eragozten duen okupazio orotatik salbu eta libre uzteko xedez. Horretarako, ofizioz berreskuratzeko prozedura hau izapidetzen da, hura eteteko legeko arrazoirik izan gabe.
- Adierazi behar da Amurriko 1 zenbakidun Lehen Instantzia eta Instrukzioko Epaitegiak 2019ko urriaren 4an emandako 75/2019 zenbakidun auto bidez, Auzitegiak gaia ezagutzeko Jurisdikziorik ez duela deklaratu zela, aldeei adieraziz beren eskubideak erabil ditzaketela Administrazioarekiko auzien Jurisdikzioaren aurrean. Auto horren aurrean auzi-eskatzailleak apelazio-errekurtsoa ipini zuen eta ebazteke dago.
- Mugaketaren aurrean Administrazioarekiko Auzien Jurisdikziora jotzeko aukeraren aurrean adierazi behar da Gasteizko 1 zenbakidun Administrazioarekiko Auzien



Epaitegiak, otsailaren 18an, 31/2018 Autoaren bidez Santa Kolomako bidearen mugaketa onartzeko akordioaren aurka 948/2017 zenbakidun prozedura arruntean Angel Arechavala Torre jaunak jarraitutako jardunak artxibatzea deklaratu zuela.

- Mugaketa-akordioa egintza irmo eta exekutiboa da, Santa Kolomako Bidea berreskuratzeko gauzatutako Udalaren jardunak bertan behera uzteko asmoa agindu edo babesten duen ebazpen judizialik eman ez delarik.

KONTUAN IZANIK.- Toki Araubidearen Oinarriak Arazten dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean 68. artikuluan eta harekin bat datozenetan ezarritakoa.

KONTUAN IZANIK.- Tokiko Erakundeek mugaketarako eta ofizioz berreskuratzeko dituzten ahalmenei buruzko Tokiko Erakundeen Ondasunen Erregelamenduko 44.1 artikuluko b) eta c) ataletan eta 56. artikuluan eta hurrengoetan nahiz 70. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoa.

KONTUAN HARTUZ.- Ekainaren 13ko 1372/86 Errege Dekretuak onartutako Toki Erakundeen Ondasunen Araudiaren 56-59 artikuluetan xedatutakoa.

Udalbatzak, 2019ko abenduaren ...(e)ko egunez egindako ohiko osoko saioan elkartuta... (adierazi gehiengoa), ...

ADOSTU DU:

LEHENA.- Santa Kolomako mugarrizaturiko bideko, zeinaren erabilera instalazio eta eraikuntza ezberdinek oztopatzen baitute, azalera hauek ofizioz berreskuratzea, haren identifikaziorako katastro-erreferentzia zaharrak aipatuz:

1. Antzinako 49 A katastro-partzela, gaur egun, lur-erazketak eta bi txabola txikik eta egindako lur-neurketatik kanpo dagoen itxitura batek okupatzen duten bide publikoa. Horiek kendu egin beharko dira, eta pilatutako materialak eta atoiak ere kendu egin beharko dira.
2. Antzinako 737 A katastro-partzela, gaur egun pilatutako eraikuntza-materialak, bertatik kendu beharko dena, okupatzen duen bide publikoa.
3. Antzinako 38 B katastro-partzela, gaur egun lur-erazketak eta egindako lur-neurketatik kanpoko abeltzaintzako itxiturak, kendu egin beharko dena, okupatutako bide publikoa.
4. Antzinako 738 A katastro-partzela, gaur egun lur-erazketak eta harlangaitzezko itxiturak eta landare-elementuek (metalezko atea duena eta hormigoizko zolata ibilgailu sarbidean) okupatutako bide publikoa. Horiek kendu egin beharko dira pilatutako materialarekin eta bertan dauden hirigintzako beste elementu batzuekin eta altzari zenbaitekin batera.

BIGARRENA.- Gaur egun Santa Kolomako bide publikoaren zati diren katastro-partzela zaharretako titular modura agertzen zirenak deitzea HILABETE BATEKO epean, akordio hau jakinarazten den egunetik zenbatzen hasita, mugarrizaturiko bide publikoko lurak okupazio orotatik libre utz dezaten, hartarako sarbide publikoa ahalbidetuz, inolako eragozpenik gabe.

Ohartaraztea bidea erabiltzea eragozten duten okupazioak kentzeko agindua betetzen ez bada, horretarako ematen den epearen barnean, Udalak berreskuratu egingo duela, egikaritze subsidiarioan, gastu guztiak obligaziodunen kontura izanik, zeintzuei dagokion likidazioa igorriko baitzaie dagokion zenbatekoarekin eta, beharrezkoa balitz, haren ondarearen aurrean premiamenduzko bidera joz.



HIRUGARRENA.- 2019ko urriaren 3ko Osoko saioan adostutako Santa Kolomako Bidearen mugaketari dagokion mugariak ipintzeko jarduna bertan behera uzteko eskaeraren ezezteko aurrean Angel Arechavala Torre jaunak 2019ko azaroaren 18an ipinitako berraztertze errekurtsoa ezestea, mugaketaren akordioaren exekuzioa irmoa eta exekuzioa izanik.

LAUGARRENA.- Akordio hau interesdun guztiei jakinaraztea, interesdunei adieraziz lehenengo eta bigarren ataletan adostutakoaren aurka aukera izango dela Udal honen aurrean berraztertze errekurtsoa jartzeko, hilabete bateko epean, edo aldiz, jakinarazpenetik bi hilabeteko epean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzeko aukera, Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegien aurrean.

Hirugarren atalean adostutakoaren aurka interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezake jakinarazpena jaso eta bi hilabeteko epean, Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegien aurrean”.

Aldeko botoak:

Joseba Mirena Vivanco Retes, Zuriñe Frutos Gutierrez-Barquin, Unai Gotxi Kastrexana eta Alazne Lafragua Ureta, EHBildu taldekoak (4); Encina Castresana Astarloa, Miren Izaskun Perez Barragan eta Jose Miguel Vadillo Ribacoba, EAJ alderdikoak (3);

Kontran:

Batere ez.

Abstentzioa:

Batere ez.

Onartuta geratu da.

4.- 6/2019 Kredituaren Gaikuntza onartzea.

Alkateak 2019ko abenduaren 16an egindako Kontu, Langile eta Herrien Informazio Batzorde bereziaren saioan emandako irizpena irakurri du.

“2019KO ABENDUAREN 16AN EGINDAKO KONTU, LANGILE ETA HERRIEN INFORMAZIO BATZORDE BEREZIAREN IRIZPENA.

Ikusirik indarrean dagoen 2019ko Udal Aurrekontuaren Gastuen Egoera-orrian ordainketa-kredituak gaitzearen inguruko 6/2019 espedientea, 32.305,76 eurokoa.

Ukertuta, Idazkari eta Kontu-hartzaileak jakinarazten duenez, espedientea bat datorrela otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauko 31. artikuluan eskatutako betekizunekin eta Egikaritze-aurrekontuaren Udal Arauan ezarritakoarekin, 2019ko abenduaren 16an egokiro egindako Ogasun eta Antolamendu Informazio Batzarrean proposatzen zaio Udalbatzari har dezala hurrengo

AKORDIOA

Aipatutako akordioa eta bertatik eratortzen diren diru-sarrera eta gastuekin lotutako egoeren aldaketak, jarraian zerrendatzen direnak, onartzea:

DIRU-SARREREN EGOERA

Kreditua sortzen duten diru-sarrerak dira:

AURREKONTU APLIKAZIOA	IZENA	ZENBATEKOA
13001	EKONOMIA JARDUEREN GAINEKO ZERGA LUCART TISSUE 2018	13.187,26
42014	AFA. EGUNEKO ARRETARAKO LANDA ZENTROA 2018KO LIKIDAZIOA.	13.451,88
72005	AFA. NEKAZARITZA. JAUREGIKO BIDEA EGOKITZEA 2018	5.666,62



	GUZTIRA	32.305,76
--	----------------	------------------

Eta, aurrekontuaren ikuspuntutik, indarrean dagoen 2019 ekitaldiko aurrekontuaren diru-sarreraren egoera-orriaren aldaketa dakarte, honako moduan:

AURREKONTU- U- APLIKAZIOA	IZENA	HASIERAK O KREDITUA	IGOERA	KREDITUA GUZTIRA
13001	EKONOMIA JARDUEREN GAINEKO ZERGA LUCART TISSUE 2018	13.000,00	13.187,26	26.187,26
42014	AFA. EGUNEKO ARRETARAKO LANDA ZENTROA 2018KO LIKIDAZIOA.	17.782,34	13.451,88	31.234,22
72005	AFA. NEKAZARITZA. JAUREGIKO BIDEA EGOKITZEA 2018	0	5.666,62	5.666,62
		30.782,34	32.305,76	63.088,10

DIRU-SARRERA KONTZEPTUAN IGOERAREN ZENBATEKO OSOA:

32.305,76

GASTUEN EGOERA

AURREKONTU- APLIKAZIOA	KONTZEPTUA	ZENBATEKOA
1532.601.001	LEH. AGIRRE BEGIRATOKIAREN IRISGARRITASUNA HOBETU ETA HURA BERRESKURATZEA	1.051,97
161.221.002	URAK	2.000,00
241.421.002	SUSTATZAILE EKONOMIKOA AIARAKO KUADRILLA	132,87
241.421.004	AIARAKO KUADRILLAKO ESKUALDEKO ENPLEGU PLANA 2019-2020	7.401,21
323.120.000	ESKOLA GARBITZEKO OINARRIZKO ORDAINSARIAK	4.000,00
323.160.001	ESKOLAREN GARBIKETARI DAGOKION GIZARTE SEGURANTZA	3.000,00
335.421.001	AIARAKO KUADRILLAN EUSKARA SUSTATZEKO JARDUERA	0,59
920.222.002	POSTA KOMUNIKAZIOAK	300,00
920.226.004	FUNTSETAKO HORNIDURAK	3.000,00
920.226.006	IKURRINA	296,45
920.227.004	INFORMATIKA-EKIPAMENDUEN MANTENUA	1.000,00
920.227.010	LAGUNTZA ETA AHOLKULARITZA JURIDIKOKO KONTRATUA	5.000,00
9200.162.005	ADMINISTRAZIO OROKORREKO BIZI ASEGURUA	122,67
9200.120.000	OBRA ETA ZERBITZUEI DAGOKIEN OINARRIZKO ORDAINSARIAK	3.000,00
9201.160.001	OBRA ETA ZERBITZUEI DAGOKIEN GIZARTE SEGURANTZA	2.000,00
	GUZTIRA	32.305,76

GAITUTAKO KREDITUEN ZENBATEKO OSOA:

32.305,76

Aldeko botoak:

Joseba Mirana Vivanco Retes, Zuriñe Frutos Gutierrez-Barquin, Unai Gotxi Kastrexana eta Alazne Lafragua Ureta, EHBildu taldekoak (4); Encina Castresana Astarloa, Miren Izaskun Perez Barragan eta Jose Miguel Vadillo Ribacoba, EAJ alderdikoak (3);

Kontran:

Batere ez.

Abstentzia:



Batere ez.
Onartuta geratu da.

5.- Arabako Pentsionista Lanean plataformak aurkeztutako mozioa.

Unai Gotxi Kastrexanak mozioa irakurri du:

“Arabako Pentsiodunen Mugimenduko kide den Arabako Pentsionistak Lanean plataformak Osoko Bilkuran onartzeko aurkeztu duen mozioa.

Pentsio mugimendua kalean dago modu jarraituan 2018ko urtarrilaren 15etik.

Denbora aurrera doa, hauteskunde mota asko egin dira azken garaian eta gure mobilizazioekin lortutako emaitzak ez dira sendotu.

Prekarietatea eta pentsioen murrizketa ekarri diguten Lan eta Pentsioen Erreformatan indarrean daude, baita bere ondorioak ere; Gero eta adineko pertsona eta erretiratu gehiagok osatzen du gizartetik baztertua dagoen multzoa, bizitza duin eta autonomia izateko aukerarik gabe.

Dagoeneko promesek nekatu egiten gaituzte eta ekimenak nahi ditugu. Gure aldarrikapenek, behingoz, erantzuna jaso dezaten nahi dugu eta erantzun horiek bete daitezzen, behar den dirua bideratzea behar dugu eta legalki betikotzea, guretzat eta etorkizuneko belaunaldientzat.

Pentsio publiko eta duinen eta behar besteko diru-sarreraren eskakizunak, oinarritzko justizian errotu eta gizarte demokratiko eta bidezko baten konpromisoan oinarritzen direla uste dugu.

Horregatik, Udaltza honir ESKATZEN diogu onar ditzala hurrengo proposamenok:

1. Pentsioen Banaketa Sistema Publikoa eta pentsio duin, bidezko eta askien defentsa egitea.

2. Europako Gutun Sozialaren eskaerak bete eta diru-sarrera nahikoa ezartzea:

- Lanbide arteko gutxieneko soldata 1200 euro.*
- Gutxieneko pentsioa 1080 euro.*
- Pentsioen igoera automatikoa eta iraunkorra izatea, gutxienez KPlaren arabera eta Legez bermatua.*

3. Prekarietatea ugaritu duten lan-erreformatan eta 2011 eta 2013ko pentsioen erreformen alde kaltegarriak ezabatzea.

4. Soldata, pentsio, lan-baldintza eta enpleguan genero-arrakalarekin amaitzea.

5. Zigorrik gabeko aurrejubilatzea, 40 urte kotizatuta dutenentzat.

6. BASE eta pentsio plangintza pribatuaren aldeko onura fiskalik ez.

Mendekotasun egoeran bizi diren pertsonentzat, legez bermatzea zerbitzu sozio-sanitario unibertsal eta publikoen bidezko prestazioak, diru publikoak ordainduak.

Adineko pertsonena eta erretiratuentzako plangintza berezia egitea, beraien bizitza-baldintzak hobetzea aldera eta, horrekin batera, zerbitzu eta prestazio horien inguruan, Udaletik bideratutako informazio eta aholkularitza plangintza antolatzea.

Herritarrei dei berezia egitea, pentsiodunen mobilizazioetan parte hartzeko eta bereziki aurreikusitako mobilizazioetan”.

Alkatea: mozio honen inguruan ezer aipatu nahi baldin baduzue.

Miren Izaskun Perez Barragan: guk gaur goizean demanda bat erregistratu dugu.

Jose Miguel Vadillo Ribacoba: honi zuzenketa bat gaineratu nahi diogu. Encinaren izenean aurkezten da. Irakurri egingo dut:

“1. - Artziniegako Udalak pentsioen sistema publikoa defendatzen du Ongizate Egoeraren zutabeetako bat dela irizita.

2.- Artziniegako Udalak dei egiten dio hertsatuki Espainiako Gobernuari, pentsioen gaineko eskumenaren titular eskusiboa baita, pentsio duin, bidezko eta askien sistema bat berma dezan, pertsona guztientzat bizi-baldintza duinak ahalbidetzekoak.

3. - Artziniegako Udalak Toledoko Itunaren batzordea bultzatzeko eskaera egiten du lehenbailehen sistemaren iraunkortasuna eta Gizarte Segurantzaren pentsio sistemaren iraunkortasun faktorea eta errebalorizazio indizea arautzen duen 23/2013 Legea aldatzea ziurtatzeko pentsio arloko neurriak martxan ipintzea lortzeko.



4. - Artziniegako Udalak Espainiako Gobernuari eskatzen dio erosteko ahalmena eta pentsioen iraunkortasuna berma ditzan, gutxienez, KPlaren arabera haiek eguneratzea errespetatuz.

5. - Artziniegako Udalak Espainiako Gobernuari eskatzen dio, Euskadirako Autonomia Estatutua onartu zuen abenduaren 18ko 13/1979 Lege Organikoko 18.2. artikuluan eta bosgarren Xedapen Iragankorrean xedatuarekin bat etorritik, Euskal Autonomia Erkidegora transferitu daitezela Gizarte Segurantzako araubide ekonomikoaren kudeaketari dagozkion eskumenak.

6. – Artziniegako Udalak mozio hau pentsioen alorrean eskumena duten Espainiako Gobernuko Ordezkaritzara eta Eusko Jaurlaritzan Ministeriora igorriko du.”

Alkatea: garaiz izatea gustatuko litzaiguke, irakurri eta aztertzeko.

Arabako Pentsionistak Lanean plataformak aurkeztutako Mozioa bozkatu da.

Aldeko botoak:

Joseba Mirena Vivanco Retes, Zuriñe Frutos Gutierrez-Barquin, Unai Gotxi Kastrexana eta Alazne Lafragua Ureta, EHBildu taldekoak (4);

Kontran:

Batere ez.

Abstentzioa:

Encina Castresana Astarloa, Miren Izaskun Perez Barragan eta Jose Miguel Vadillo Ribacoba, EAJ alderdikoak (3);
Onartuta geratu da.

Mozio alternatiboa bozkatu da.

Aldeko botoak:

Encina Castresana Astarloa, Miren Izaskun Perez Barragan eta Jose Miguel Vadillo Ribacoba, EAJ alderdikoak (3);

Kontran:

Batere ez.

Abstentzioa:

Joseba Mirena Vivanco Retes, Zuriñe Frutos Gutierrez-Barquin, Unai Gotxi Kastrexana eta Alazne Lafragua Ureta, EHBildu taldekoak (4);
Onartuta geratu da.

Eta jorratzeko beste gairik gabe, amaitutzat eman zen saioa, lehenago aipatu egunaren zortziak eta berrogeita hamar minututan. Eta guztiorren gainean, fede ematen dut.